



3 KULTURA

Eduki digital berriak eta urteko prezioak zehaztu dira

Udaleko kultura sailak urte berriko prezioak finkatu ditu. Orain artean zinema-saioetarako bakarrik balio zuten bonuak aldatu egin dira eta zinema, antzerki edo dantza saio guztietarako balio duten bonu bihurtu dira, haurrentzakoak alde batetik eta helduentzakoak bestetik. Bestalde, zinearen digitalizazioak eduki berriak ekartzeko aukera eskaintzen duela azpimarratuta, opera eta dokumental ikusteko aukera izango da besteak beste.


4 POLITIKA

Santi Arrozpideren atxiloketaren harira, mobilizazioak

Astelehenean atxilotu zuten Santi Arrozpide Lasarte-Oriako erdigunean Auzitegi Nazionaleko Andreu epailearen aginduz. Hau salatzeke manifestazioa egin zen astelehenean eta elkarretaratzea asteartean, herriko Sortuk deituta. Denera 27 urte kartzelan eginda, abenduan geratu zen aske Arrozpide Frantzian egindako espetxe urteak kontutan hartuta.



Txintxarri.eus-en itxura aldaketa



Txintxarri.eus ataria berri du. Modu errazagoan irakurtzeko hizki mota aldatu eta handitu egin da, horrekin batera, argazkiek protagonismo gehiago hartu dute eta atalen berrantolaketa bat egin dugu. Oraindik lanean ari gara eta suertatuko dira aldatu beharrekoak. Lehenengo urratsak emanda, datozen egunetan fintzen joango gara.

Iragarri bezala, Interneteko txintxarri.eus atarian aldaketak egiten ari gara eta asteazken arratsaldean sarreratu genuen bertsio berria.

Berrikuntza nagusiak estetikoak dira eta itxura garbiagoa ematen saiatu gara irakurketa errazte aldera. Letra mota aldatu eta handitu dugu eta argazkiek ere presentzia handiagoa izango dute orrialde nagusian. Menua edo agerkariaren atalak ere beste modu batera antolatu dira.


Gazteen atalean LMLK tailerreko eta Irakutrezineko edukiak jasotzen dira, Irakutrezinekoak laster izango

dituzue sarean, izan ere gazteek prestatuta dute euren lehenengo aldizkaria. Atariaren amaieran, azken eduki multimediak aurki daitezke.

Horrekin batera, webgunea edozein gailutara egokitzen da eta eduki berdinak aurkituko dituzte irakurleek mugikorretan, tablet-etan edota ordenagailutik gura sartzean.

Oraindik lanean

Aurrera begira aldaketa gehiago izango dira eta atal ezberdinetan sakontzea izango dute helburu. Datozen asteetan hobekuntzak egiten jarraituko dugu eta



Txintxarri.eus atari berria gailu guztietara egokitzen da.

sor daitekeen edozein eragozpenengatik aurrez barkamena eskatzen dizuegu.

Espero dugu zuen gustukoa izatea eta nola ez, herritarren ekarpenak ere ongi-etorriak izango dira

Txintxarri hobetzeko.

Badakizue non gauden sare sozialetan, Twitterren txioa bidali @txintxarri.eus edota Facebookeko Txintxarriren orrialdean utzi iruzkina.

**12 ORDAINDU HILABETEAN INTERESIK GABE** TIN: 0% TAE: 0%

**DESKONTU IKARAGARRIAK !!!**

**HOZKAILU KONBI BOSCH**

**LEHEN 1490€**

**ORAIN 799€**

**Bideo TIEN 21 Lagunak**

**Etxekotresna elektrikoetan adituak**

**Zatoz eta konparatu!**

Inguruko erakusketarik onena prezio onenekin.

Ref: 3KF39X142



## Neure kabuz



### Ane Labaka Suntsibidea

Euskara ikasle batek arkatzen irimoz batu ditu bi zuta-beetako hitzak. Antonimoak, aurkako esanahia duten bi hitz; konpondu eta suntsitu. Eta neure artean pentsatu dut baietz, ez dagoela azken egunotako egunkarietako titularretara jotzea besterik bi hitz hauen aurkako adierak ulertzeko. Konpondu daitezke erlojuak, zulatutako galtzak, trabatutako kremailerak... Eta gatazkak. Suntsitu edo hondatu daitezke, aldiz, bihotzak, hondarrezko gazteluak... Eta herri txikien amets handiak.

“Konponbidea” bezalako hitz potoloak darabiltzagu ahotan, esatearekin batera ahoa betetzen duten horietakoak. Bitartean, ekintzek suntsitzen eta husten gaituzte. Arestian esan dudana bezala, ez dago titularrei so jarritza besterik. Egun gutxiko tartean ilundu dute Bilboko kaleetan argizatutako bidea eta suntsibiderantz garamatzate. Zentzugabeko epaiketa bat gehiago, bertan babesle behar zutenak atxilo hartu eta babesgabe utziz. Jarraian, berrogeita bost egunez “aske” izandako herritar baten bahiketa eta dirutza bahitu duenaren askatasuna egun gutxiko tartean. Justiziaren izenpea daramate denek. Guk, ordea, aspaldi utzi genion justiziaren sinisteari.

Galtzak horkatiletaraino jeitsi izanaren sentipena duela entzun diot bati baino gehiagori, masailko gogor bat jaso ondoren beste masaila eskeintzen ari garela etengabe. Nik erantzun diet hori dena aurrean gauden seinale dela, duintasunez eta indartsu. Eta gai garela sastraka artean bidezidorrak eraiki eta herri hau suntsibidetik konponbiderantz gidatzeko.

## Zorion agurrak



Nora eta Lara

Gure etxeko pastelitoak handitzen ari dira! Zorionak bio! Mua eta mua!!



Irati

Zorionak maitia!! Zazpi muxu erraldoi zure familiaren partetik.



Ane

Zorionak Ane!!!!, zure 4. urtebetetzean. Muxu handi bat zure familiaren partetik!!



Amaia

Zorionak printzesa! 6 muxu potolo guztion partetik.



Joxe Benito

Zorionak eta ondo pasa zure urtebetetze egunean, etxekoen partetik. Jo ta ke, irabazi arte.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, [txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info) edo [txintxarri.eus](http://txintxarri.eus) web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

## Azoka txikia

## Higiezin Eskaintza

- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 52 67 66
- Etxea alokatzen da erdigunean, Okendo plaza eta Kale Nagusira ematen du eta berri-tua dago. Apiriletik aurrera. Saioa 656 75 32 28
- Garaje bat alokatzen da Super BMko parkean. 648 20 08 11.
- Etxea alokatzen dut San Martzial kalean, Tximistarreta parean. Prezioa negoziatzeko. 677 86 36 42

## Salerosketak

- Estreintatu gabeko ASPES markako bitroze-ramika eta labea ditut salgai, 275 eurotan. [sukaldeasalgai@hotmail.com](mailto:sukaldeasalgai@hotmail.com).
- Honda Accord markako auto bat saltzen dut. 5 ate ditu, gasolina, aire girotua ere badu. 63.000 kilometro, egoera onean. Prezioa: 900 euro. 696 50 67 39.

## Lan-eskaria

- Garbiketarako, umeak edo agureak zaintzeko prest nago. Edozein ordutegi (interna izan ezik). Azucena. 669 93 10 26.
- Adinduak, umeak edota garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edota interna moduan. Esperientzia eta erreferentziak. 662 27 71 36
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943 40 40 15 / 606 66 10 48
- Emakume arduratsua eskaintzen da garbiketa lanetarako edota haur eta umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 611 30 94 62.
- Etxeko lanak egiteko esperientziadun emakume bat eskaintzen da, etxean sor daitekeen edozein zereginetarako. Curriculum-a eta informazioa emateko prest. 648 63 00 16.

## Heriotzak Jaiotzak

## Jaiotzak

- Arai Arteaga Salsamendi urtarrilaren 17an.
- Maren Zubilaga Gonzalez urtarrilaren 15ean.
- Valentina Buenhombre Garbizu urtarrilaren 15ean.
- Julen Hernandez Encinas urtarrilaren 13an.
- Ales Hernandez Encinas urtarrilaren 13an.
- Daniel Monteino Zavala urtarrilaren 11ean.
- Julen Mediero Morales urtarrilaren 9an.

## Heriotzak

- Shole Garro Eizmendi urtarrilaren 18an, 100 urte zituela.
- Benita Iribar Loyarte urtarrilaren 14an, 79 urte zituela.

## Farmazia Goardiak

## EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 23 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 24 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 25 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 26 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 27 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 28 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 29 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

## GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Echeveste Elozegi, Elkano 9  
Hernani, Tel.: 943 552087

## Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

## Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal eskalategia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



## Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

## txintxarri

## Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Jon Altuna E.  
**txintxarri@txintxarri.info**  
**Publizitatea eta administrazioa:**  
Arantza Artola  
**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi  
**Informatikoa:**  
Xabier Amadoz

## KULTURA

## Zinemako eduki digital berriak

2015eko prezioak ere finkatu ditu Udaleko Kultura sailak



Urriar aurkeztu zuten zinema digitaleko agenda, eta orain edukiak berritu dituzte.

Lasarte-Oriako Kultura departamentuak Manuel Lekuonako zinemaren digitalizazioaren berri eman zuenetik, zinemaren edukiak pixkana aldatuz joan dira. Digitalizazioak ematen dituen abantaila eta aukera berrien zati bat ikusi ahal da asteburu honetan zehar. Gainera, urte berriarekin batera, tarifa berriak jarri dituzte.

## TXINTXARRI

**G**auko 22:00etan, eta urte askoan Okendo Zinema Taldea egiten ari den lanarekin jarraituz, zineforumeko saioan "Paco de Lucía: la búsqueda" dokumentala ikusi ahalgo duzun. Paco de Lucía 2012. urtean zehar egin zuen prestaketaren eta biraren parte bat ikusi ahalgo dugu dokumental horretan.

Larunbatean, 20:00etan, eta joan den astean Kulturako Departamentuak aurreratu zuen moduan, "Tosca" opera ikusi ahalgo da, Londresko Royal Opera Housean grabatua. Jatorrizko bertsioan eta gaztelaniaz azpituatua izango da.

Igandean, asteburuari amaiera emanez, haurrentzako saioan "Yugo eta Lala" (euskaraz) eta helduentzako saioan "Exodus: dioses y reyes", 19:30ean.

## Tarifa berriak

2015ak prezio berriak ere ekarri ditu Manuel Lekuonako sarreretan. Izan ere, orain artean zinema-saioetarako bakarrik balio zuten bonuak aldatu egin dira eta zinemako, antzerkiko edo dantzako saio guztietarako balio duten bonu bihurtu dira, haurrentzakoak alde batetik eta helduentzakoak bestetik. Aipatutako bonuetatik kanpo gelditzen dira 3D zinemarako

sarrerak eta eduki digitalen prezioak.

Beraz, honako kostua izango dute 2015. urtean: Haurrentzako banakako saioa 3,80 euro; haurrentzako 10 sarrerako bonua 28,00 euro eta 3D zinema 4,80 euro. Pelikula hauentzako ez dago bonurik.

Helduen saioetako banakako txartelak berriz, 5,50 euro balio du; helduentzako 10 sarrerako bonuak 45,00 eta 3D zinemako sarrera 6,50 eurotan ordaindu beharko dira. Haurren zinemaz bezala, hiru dimentsiotako sarrerak ez dira inongo bonotan sartzen.

## Digitalizazioa, iazko urrian

2014ko urri hasieran proiektore zaharra aldatu eta zinea digitalizatzeko urratsa ematen duen Kultura Departamentuak. Hori dela eta, urritik 3D pelikulez eta berriki estreinatutako diren filmez gozatu dute herritarrek, besteak beste.

## AISIA

## Urteko lehenengo txangoa antolatu du Biyak Bat elkarteak

Aragoi eta bertako hainbat hiri eta toki esanguratsu bisitatzeko irteera antolatu dute Biyak Bat nagusien egoitzako kideek. Martxoaren 25ean aterako dira eta handik bi egunera bueltatu, 27an. Izena emateko epea martxoaren 19an amaituko da. Elkarteko bazkide direnek 245 euro ordaindu beharko dituzte txango hori egiteko, eta 250 bazkide ez direnek.

Bi eguneko txango horretan Aragoiko leku esanguratsuenak ezagutzeko parada izango dute irteeran izena ematen dutenek: Piedrako monasterioa, Calatayud, Teruel, Zaragoza eta Albarracin, besteak beste.

## EUSKARA

## AEK-Muntteri euskaltegian izena emateko aukera

Ikasturtea irailean hasi bazen ere, AEK-Muntteri euskaltegiak gogorarazi du matrikulatzeko epea zabalik dagoela, urte osoan ez baitute ixten. Bertan izena emateko interesa dutenak bulegora joan daitezke (Geltoki kalea, 17) 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Telefono zenbaki bat ere jarri dute herritarren eskura: 943 37 28 63.

Bestalde, martxoaren 19tik 29ra egingo den Korrikaren (Lasarte-Oriara 22an iritsiko da) materiala salgai dago euskaltegian. Herritarrek bertatik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko ordutegian.

## AISIA

## Luz Ardidenera eski irteera antolatu du Ttakunek, otsailaren 22an

Kuadrillategiko zein DBH 1-4 maila arteko gazteek aukera izango dute otsailean eskiaz gozatzeko. Luz Ardidenera irteera antolatu du Ttakunek otsailaren 22an. Goizeko 05:45ean irtengo dira Hipodromo zubiaren ondok eta egun bereko 20:00etan itzuliko dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, Kuadrillategiko partaideek lehentasuna dute plazak hartzerako orduan. Urtarrilaren 30a izango da izena emateko azken eguna.

Prezioan garraioa, materialaren alokairua, segurua eta forfaita sartzen dira. Ordaindu beharreko kopurua gazteek eskatzen dutenaren arabera izango da. Ordainketa 2095-5048-18-1061552351 kontu korrontean egin beharko da gaztearen izen-abizenekin batera. Era berean, gazteek materiala behar izanez gero, eski edo snowboard materiala behar duten zehaztu beharko dute.

Behin ordainketa eginda, izen-emate orriarekin batera (guraso batek sinatua, Ttakunen bertan hartu daiteke) ordaingiri ere eraman beharko da, gazte eta gurasoen NAN fotokopiarekin batera.

Gazteek elurretan aritzeko arropa egokia, aldatzeko arropa, hamaiketako, bazkaria, merienda eta Osasun txartel europearra eraman beharko dituzte irteera egunean. Edozein zalantza argitzeko, deitu 943 37 14 48ra edo idatzi [eskolakirola@ttakun.com](mailto:eskolakirola@ttakun.com) helbidera (Iñaki).

## "Etorkizuneko erronkak" zehaztuko ditu EH Bilduk datorren astean

**E**H Bilduk urrian hasitako E-prozesu "parte-hartzaile eta irekiak" aurrera darrai. Bigarren fasean daude murgilduta orain, balorazio fasea amaitu ondoren. Datorren astean hiru saio antolatu dituzte astelehen, astearte eta asteazkenean, "etorkizunera begira" dituzten "erronkak" zehazte aldera.

Hiru saio horiek Udal Euskaltegian (Anbulategiko bigarren solairuan) izango dira; 19:00etan hasiko dira saio horiek guztiak. "2015eko udal hauteskudei begira eta hurrengo agintaldian egin beharko dugun lana aintzat hartuta, gure etorkizuneko

erronkak zehazteari ekin diogu. Horretarako antolatu ditugu hiru saio horiek datorren astean", adierazi dute koalizio abertzaleko kideek.

## "Lasarte-Oria 2030"

"EH Bilduko udal arduradunek arlo desberdinen egungo egoeraren diagnostikoa egingo dute datorren astean, interesatuak dauden herritarrekin batera", zehaztu dute. "Etorkizuneko herriak, Lasarte-Oria 2030, izan beharreko ezaugarriak finkatzeko" baliatuko dituzte hiru saio horiek.

Saio horietara bertaratu ezin dutenentzat edo etxetik ekarpenak egitea nahiago

dutenentzat hainbat bide jarri ditu EH Bilduk: e-maila ([lasarte@ehbildu.net](mailto:lasarte@ehbildu.net)) eta Twitter (@[EHBildulasarte](https://twitter.com/EHBildulasarte)) zein Facebook (<https://www.facebook.com/ehbildulasarteoria>) kontu pertsonalak.

Datorren astean egindako lanketa otsaila eta martxoan zehar martxan jarriko duen hirugarren fasean jorratuko du EH Bilduk.

## Balorazio fasea, amaituta

Otsailean data bat zehaztu du jada EH Bilduk. Jakinarazi du plaza ireki bat antolatuko dutela otsailaren 3an (kartelako data okerra da) Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan,

19:00etan. Egun horretan urritik hona burututako balorazio fasearen emaitzak aurkeztuko ditu herritarren aurrean. "Dagoeneko gauzatu dugu balorazio fasea; EH Bilduko kideek eta herritarrek hartu dute parte fase horretan".

Horren harira, datu bat ere eman du koalizio abertzaleak: "540 herritarrengana iristeko aukera izan dugu, eskuz esku egindako hainbat inkestaren bitartez".

Behin lehen fasea amaituta, bigarrenari ekingo dio EH Bilduk datorren astetik aurrera. "Etorkizuneko Lasarte-Oriako erronkak" zehazten hasiko da.

Lasarte-Oria 2030

**hari gara**

2. fasea

Diagnostikoa  
Etorkizuneko erronkak  
Nuevas retos para el futuro  
Lasarte-Oria 2030

Urtarrila 26

- BEHARRI ERANTZUNGO DIEN HIRIGINTZA ETA UDAL POLITIKA JASANGARRIA
- HERRI ANTZ BATEAN KULTURA ETA HIRIGINTZA
- EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO ESKUBIDEEN BERDINTASUNA

27

- UDALERRIKO ESKOLA PROIEKTUA
- KULTUR HERRIAN DINARRITURKO KALE GIRA
- ONARRIZKO BEHARRIEN ASEBETETZEA BERMATUKO DUTEN GIZARTE POLITIKAK

28

- UDAL BALABIDE EZBERDINAK: TASA, HERRI POLIZIA, GARBIKETA ETA HIRI LANAK
- KIROL, HERRI OSASUNTUA
- HERRITARRIEN PARTE-HARTZEA UDALGINTZAN
- TOKIKO EKONOMIAREN GARAPEN SOZIAL ETA ERALDATZAILAK

Otsaila 04

PLAZA IREKIA  
Balorazio fasearen aurkezpena  
ARLAKAKO ERRONKA EZBERDINEN AURKEZPENAK

ehbildu

Lau saioak iragartzen dituen kartela.



# Mobilizazioak Arrozpideren atxiloketarik

## Elkarretaratzea eta manifestazioa egin zituen Sortuk herritarraren atxiloketa salatzen

Entzutegi Nazionalako Fernando Andreu epaileak Santi Arrozpide espetxeratzeko agindu zuen "ihes egiteko arriskua" dagoela argudiatuz. Egozten zaizkion bi atentatuen epaiketak "berehala" izango direla esan du Andreuk eta "pena handiak" jaso ditzakeela ikusita, bertan baldintzarik gabeko espetxe zigorra ezarri dio. Arrozpidek ez zuen deklaraziorik egin nahi izan.

TXINTXARRI

Iker Urbina abokatuak jakinarazi zuenez, Madrilgo Soto del Real espetxera eraman zuten herritarra.

Sortuk elkarretaratzea egin zuen asteartean Okendo plazan, 'Aski da! Errepresioari stop' lelopean. Alderdi abertzaleko kideek berriro ere salatu zuten Gobernu "elektoralki" jokatzeko ari dela "trikimailu juridikoak" erabiltzea. "Santi Arrozpidek kartzelan bete beharreko urte guztiak beteak ditu, gertatzen dena da epaileengan presio handia egiten duela Gobernuak eta biktimak lasaitu nahi dituztela gisa honetako neurriekin", adierazi zuten.

### Atxiloketa

Astelehenean 9:50 inguruan atzeman zuten herritarra, San Pedro eliza parean. Lasarte-Oriako erdigunean atxilotu zuten, udaletxetik gertu. Lekuko arabera kalez jantzitako polizia kaputxadun batzuek atxilo hartu zuten Arrozpide eta eraman egin zuten auto batean. Momentu horretan beste bi lagunekin zihoan Arrozpide. Operazio azkarra izan zen, herriko kaleetan ez zen ez medioen ez polizia presentziarik antzeman.

Auzitegi Nazionalako 4. Instrukzio Epaitegi Zentralaren aginduz atxilotu zuten, akusazio berriak tarteko. 1986an Madril eta 1987an Bartzelonan atentatu bana egin izana egozten diote Arrozpideri. Atentatu horretan pertsona bat hil zen. Hilabete eta erdi egin du aske Santi Arrozpidek, espetxean 27 urte bete ondoren. Barne Ministerioaren arabera Guardia Zibilak eta Polizia

Nazionalak elkarlanean egin dako atxiloketa izan zen.

### Manifestazioa

150 lagunek egin zuten bat astelehenean Lasarte-Oriako Sortuk deitutako manifestazioarekin. Bidean 'Santi askatu!', 'Errepresioa ez da bidea!', 'Euskal presoak, etxera!' aldarriak oihukatu zituzten Okendo plazan, txalo artean, mobilizazioari amaiera eman aurretik.

### Sorturen balorazioa

Lasarte-Oriako Sortuk ohar baten bidez adierazi nahi izan du egunotan geratutako gainean bere iritzia.

"Azken astetako gertakariak bi errealitate ezberdin ikustarazten dituzte, bakearen etsaien estrategian sakontzen duen Estatu batena batetik eta bestetik, bakean, demokrazian eta askatasunean bizi nahi duen herri batena.

Estatu espainiarrari erreparatuz, argi eta garbi dakusagu deskonposizio prozesu batean murgilduta dagoela. 78ko erreformatik eratorritako erregimenak ezarritako berme demokratiko epeletan sakontzetik urruti, inboluzio dinamika batean sartuta dago Estatuak.

Horren ondorio zuzen eta lazgarria, azken asteotako azeleroi errepresiboa: Preso politikoei babes juridiko eta soziala ematen dieten 16 lagun atxiloketa horietako hiruren espetxeratzeko; ezker abertzaleko 35 kideren aurkako epaiketa, atxiloketen ondorioz atzeratua, Auzitegi Gorenaren mende-kuzko erabakia eta, aste honetan bertan, Santi Arrozpideren atxiloketa eta espetxeratzeko. Arrozpideren atxiloketa mende-kuzko gose ikuspegi batetik uler



Astelehenean manifestazioa egin zen herriko kaleetan barrena.

daiteke soilik. 27 urtez espetxeratu egin den pertsona bati, kaleratu eta hilabetera orain dela 27 urteko ekitza baten ardura leporatzea Arrospide espetxeratzeko aitzakia baino ez da.

Egoera honen inguruko hausnarketa eginda, honako ondorioa iristen da Sortu: Estatu autokolpe berri baten aurrean gaude. Estatu botere faktikoen etorkizuneko Estatu eredu baldintzatu nahi dute jadanik, etorkizuneko terenoa markatzen ari dira. Egungo egoera termino elektoraletan soilik aztertzea akats nabarmena litzateke, izan ere sakoneko helburuak dituen estrategia baten aurrean gaude.

Otsailak 23koarekin antza daukan autokolpe batez ari gara, edozein tresnataz baliatuzko kapaza dena aldaketa eragozteko, bai Euskal Herrian eta Katalunan, eta baita Estatu Espainolean ere.

Salbuespeneko ikuspegitik ari dira gobernatzen: Mordaza legea aurrera eramaten; Epaileak euren esanetara jar daitez behartzen; Abokatuak atxilotzen; Akusazio berriak fabrikatzen epaileen erabakiak ez dituztenean gustuko; Aldaketarako aukera oro eten-gabe kolpatzen.

Azkenean zuzenbide estatu batean oinarritzko ezaugarriak diren defentsarako eskubidea,

adierazpen askatasuna edota botere banaketa bezalako elementuak hankaz gora jarriz.

Salbuespeneko politikak ez dira Ezker Abertzalearentzat edota euskal edo katalan herritarrentzat bakarrik. Orain estatu aplikatzen ari diren neurriak Euskal Herrian ikusi ditugu praktikan aplikatuak azken hamarkadetan. Mordaza legeak eta herritarren askatasunen murrizketak Euskal Herrian aplikatutako salbuespeneko neurrietan dute oinarri.

Eta neurri horien helburua ez da ez segurtasuna ezta ongizatea ere. Helburua da aldaketa eragozteko bai hemen, Katalunan eta Estatu osoan. Eta horretarako orain Yihadismoaren koartada erabiltzera doaz; eta horrela martxan jarri zen plan berri bat ez bakarrik Euskal Herrian baizik eta Estatu osoan.

Beraz esan bezala, argi dugu Estatu autokolpe honen ondorioak euskal herritarrok pairatuko ditugula, baina hein berean Herri Katalanek zein Estatu herri klaseak pairatuko dituela argi dugu.

Euskal Herriari begira kokatzen bagara ordea, oso argazki ezberdina dugu. Bilbo eta Donostian astebeteko epean egin dira mobilizazio erraldoiek argi erakusten dute Euskal Herriak egoera honekin amaitu nahi duela, ozen adierazi dugu ez gaudela prest Estatu espai-

niarrak kondenatu nahi gaituen gatazka egoeran bizitzera.

Bilbo eta Donostiako mobilizazio erraldoiek erakutsi duten moduan hemen talsa demokratikoaren bitartez egingo dugu aurrera eta lortuko ditugu gure helburuak, presoak etxeratzeko eta herri gisa dagozkigun eskubide demokratikoak.

Bilbo eta Donostian bildutako hamarna milaka lagun Estatu herri hau itozteko helburuarekin elikatzen duen zurrumbilatik atera eta bide propio bati ekitako indarra bada goela erakusten digute, nahiz eta batzuk nahiago izan ostrukarena egiten jarraitu.

Aurrera begiratzeko garaia da: Alternatiba bakarra independentzia da. Eta horretarako indarrak bildu behar dira guztion artean bide propioa definitzeko eta herri honen askatasunerako grina azken muturreraino eramateko. Izan ere, eta ideia hau azpimarratu nahi dugu, Estatuak ez du eta ez du izango agenda demokratikorik. Estatu espainiarraren baitan, euskal herritarrok ez dugu sekula bakerik izango.

Euskal herritarrok inposaketarik gabe, guardia zibilik gabe, bortxakeriarik gabe, mehatxurik gabe, beldurrik gabe bizitzeko eskubidea daukagu eta Sorturen konpromisoa helburu horiekiko inoiz baino tinkoago da".

**ALCAR VENTANAS**  
Zuregandik hurbil  
Etorri gure denda berrira,  
Plaza Oriamendi, 2. (Lehenko Doble J)

GUARDIAN SUN | KÖMMERLING | Bandalux | CORTIZO

www.facebook.com/VentanasAlcar

Jarrai gaitzazu Facebooken! Gure jarraitzaile artean, laister hasiko gara opariak banatzen

Me gusta

**PVC, aluminio eta zubi termikoaren haustura, lantzen ditugu**

- Leihoak
- Ateak
- Itxiturak
- Armariak
- Barandak
- Portalak
- Erakusleihoak
- Kontraleiho landatarrak
- Kontraleihoak lama finko eta orientagarria
- Pertsianak
- Saretak

- Sabai-Leihoak
- Toldoak
- Errezel-Hormak
- Beirateria orokorrean
- Dutzako manparak
- Sarrera ate korazatuak
- Konposite materialekin horma estaldurak
- Kartel komertzialen instalakuntza
- Gortinak

Tel: 943 37 78 68  
tienda@ventanasalcar.com  
www.ventanasalcar.com

Jarraitu hemen, www.facebook.com/VentanasAlcar

**ERAKUSKETA**  
Plaza Oriamendi, 2  
20160 - Lasarte-Oria  
Gipuzkoa - (Lehenko Doble J)

**TAILERRA**  
Ibaiondo, 4 erdisotoa 5-A  
20160 - Lasarte-Oria  
Gipuzkoa



# Bost pulgadako trenak zaletasun

Zestoako Iraeta auzoan sortu berri den tren zirkuituan herriko makina bat martxan

Jubilatzerakoan hasi zen Enrique Barcenilla herritarra bere tren makinei denbora gehiago eskaintzen. Bere garajeantolatu du tailerra, "hiru auto sartzen diren garajeantolatu ez dago ezta batentzat lekua". Bertan biltzen du material guztia trenak egiteko. Bereziki harro dago San Sebastian-Tolosa ibilbideko tranbiaren maketarekin. Zestoako Iraeta auzoan kokatu da Euskadiko lehen tren zirkuitu finkoa eta bertan izan zen asteburuan Enrique herritarra bere trenarekin. Inaugurazio ekitaldia izan zen hau.

TXINTXARRI

Erretiroa hartzerakoan buru belarri jarri zen Enrique herritarra bere trenak egiten. Betidanik zuen zaletasuna baina denbora faltagatik ezin zion nahi beste denbora eskaini. Erretiroa hartzerakoan ordea, 5 pulgadako trenak egiten ditu gogotsu. Bereziki harro dago Donostia eta Tolosa XX. mende hasieran batzen zuen tranbiaren kopiaz.

"Argi nuen horrelako bat egin nahi nuela eta zaila gertatu zitzaidan eredu topatzea, azkenean 1911. urteko argazki bat topatu nuen eta bertan ikusten zenarekin hasi nintzen lanean".

Tranbiaren ezaugarri dagokionez, liburu ezberdinetan aurkitu zituen materialaren inguruko erreferentziak etab. "Materiala birziklatzen saiatzen naiz, tailer batean lagunak ditut eta hauek ematen dizkidate pieza asko".

Berez erosteko aukera ere badago denda espezializatu baina "oso garestiak izaten dira". "Nahiko esku onadut eta piezak birziklatu eta egiteko iaioa naiz".

## Lehenengo zirkuitu finkoa

Aurreko asteburuan Zestoako Iraeta auzoan inauguratu zuten mota honetako trenen lehenengo zirkuitu finkoa Euskadin. Honetan Zestoako alkate Leire Etxeberria eta Turismo zinegotzi Jose Mendizabal izan ziren.

"Inaugurazio oso polita izan zen, 15 makina inguru eraman ziren" azaldu du herritarrak. Iraetako Trena Bost Pulgada Elkarteko kideek ingurua egokitu zuten eta trenalez ere jantzi ziren batzuk. "Txartelak jasotzeko gune bat prestatu zen eta bertan hartzen zituzten bidaiariak txartelak eta trenera igotzen zirenean pika bat



Enrique Barcenilla herritarra oso harro dago egindako tranbiaren kopiaz, Iraetara eraman zuen asteburuan.

pasatzen zen txartelak zula-tzeko".

Iraetako tren makinez gain, Lasarte-Oriatik Enriquet eraman zuen bere tranbiaren makina, Andoain, Bilbo, Irun, Katalunia eta beste leku batzuetatik ere joan ziren trenzaleak euren makinak martxan jartzera.

Zirkuitua bertan geratuko da eta hau kudeatzeko ardura hartu duen elkarteak txandaka deituko ditu makina hauek dituzten lagunak bertara eraman eta igandero bidaiak eskaini ahal izateko.

"Zaletasun hau dugunontzat aukera polita da Iraetan sortutako zirkuitua, orain arte leku askotara eraman izan dut



5 pulgadako tren hauetan bidaiak egiteko aukera dute haur zein helduek.

nire makina baina orain gertuago geratuko zait".

Honekin batera, herritar-

rrak animatu nahi izan dituzte zirkuitura bisita egin eta zaletasuna gertutik ezagutzeko.

## Herriko danborrada San Sebastian eguneko ospakizunetan

San Sebastian bezperan danbor hotsak entzun ziren herrian arratsalde eta gauean.

Herriko lau ikastetxeek gogoz astindu zituzten danborrak arratsaldean zehar, eta gauean berriz Lasarte-Oriako danborradako kideen txanda izan zen (ATLO elkarteak gehienak).

Herriko danborradako ordezkari horiek emanaldia eskaini zuten Zubietako Araeta jatetxean.

ATLO elkarteak lehenakari eta Danbor Nagusi Felix Telleriaren gidaritzapean, Raimundo Sarriegik konposatutako obretan oinarritutako ikuskizunaz gozatu zuten Araetara joan zirenek.

Emanaldiarekin hasi baino lehen afari eder bat egin zuten Lasarte-Oriako danborradako kideek, San Sebastian egunean ohikoak diren jakiez osatutako menua dastatuz. Afalorduan hartutako indarrak baliatu zituzten ondoren ordubetez danborrak astintzeko, gaueko hamabietatik hasita.

Araetara bertaratutakoek ikuskizunaz ederki gozatu zuten, giro ederrean, San Sebastian bezperako gauean.



Lasarte-Oriako danborradako hainbat kide ordubetez aritu ziren Araetan.



**GOTEGI**  
Jatetxea · Restaurante

Irubide bailara 1 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)  
T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

**Urtarrilaren 31ean**

**MARIDAJE AFARIA**

• 2 SARRERAK  
• ARRAINA  
• HARAGIA  
• POSTRE  
GOZO BAT

**30 €**

5 ARDOen DASTAKETA

“CONDE de VALDEMAR” ardandegiko

ENOLOGOAK, gidatuta

ERRESERBA, AURRETIK EGIN BEHAR DA



## LABURRAK.-

## Nahia Zudaire Espainiako txapelketan bihar, kirol egokituko Euskadiko selekzioarekin



Nahia Zudaire Buruntzaldea IKTko taldekidea Valladolid-en izango da asteburuan igeriketa egokituari dagokion 'Gazteen Espainiako Txapelketan' parte hartzen. Lehiaketa honetan Euskadiko Kirol Egokituko Selektioarekin arituko da.

Nahia Zudairek 50 libre, 50 bizkar eta 100 libre frogetan egingo du igerian. Horretaz gain, 4x50 libre eta 4x50 estiloak errelebo mistoetan ere hartuko du parte. Espainiako Txapelketa batean lehiatzen duen lehen aldia izango du Zudairek, beraz ziur emozioa eta zirrara nahastuko zaizkiola.

Bestalde, pasa den larunbatean Mikel Soto eta Jone Vazquez Getxoko Fadura igerilekuan izan ziren Euskal Herriko Luzera Handiko Txapelketan lehiatzen. Biak juniorrak izanik, 3.000 libre frogan aritu ziren. Tamalez, Buruntzaldea IKTko igerilariak laugarren postuarekin konformatu behar izan zuten, podiumetik koska batera geratuta. Dena den, marka onak egin zituzten. Mikel Sotok 36:27"77ko denboran egin zituen 3.000 metroak eta Jone Vazquezek 40:38"34an gelditu zuen kronoa.

Azkenik, Andoaingo KZLko 2. jardunaldian lehiatu ziren Buruntzaldea IKTko benjamin eta alebinak. Txapelketa hau, bost urteren ondoren, herriko taldeak Andoainen antolatzen zuen lehena izan da, giro paregabearekin.

## Corbatas FCek ezin izan du Gipuzkoako lehenengo mailara jauzia eman

Pipiritaren aurka 0-0 berdindu ostean, probintziako futbol 7ko lehen mailan jokatzeko ametsa zapuztu zaie Corbataseko jokalariei. Joan den larunbatean jokatu zuten Usurbilgo Harane zelaian final itxura hartu zuen Gipuzkoako 2. mailako azken jardunaldia.

Donostiarrek hasieratik partidua defentsiboki prestatu zuten, berdinketarekin nahikoa baitzuten igoera lortzeko.

Falta askoko neurketa izan zen, trabatua. Bigarren zatiko 5. minutuan Pipiritako jokalaria batek txartel gorria ikusi zuen Imanol Avilari egindako sarrera itsusi baten ondorioz.

Corbatasi min egin zion bere goleatzaile nagusia galtzeak. Sorbaldako luxazioarekin, hilabeteko baja hartu beharko du orain. Dena den, Corbatasek ez zuen etsi. Partiduaren azken hatsera arte Pipirita bere arean sartuta eduki zuen herriko taldeak, baina baloik ez zuen atean sartu nahi izan.

Jokalariek eskerrak eman nahi dizkiete partidua ikustera hurbildu ziren lasarteoritarrei. Lanean jarraituko dute lehen mailara igotzeko ametsa lortzeko.



## ESKIA.-

## Enara Fernandezek Madrilen hasi du eski denboraldia

Ikusmen urritasuna duen kirolariak lau domina eskuratu ditu Espainiako Federazio Kopako lehen jardunaldian

**Mendi tontorrak elurrez zuritzearekin batera ekin diote eskiatzaileek aurtengo denboraldiari. Enara Fernandez gazteak urteko lehen txapelketan bi urrezko domina eta bi brontzezko jantzi zituen asteburuan Madrilgo 'Xanadu' merkatalgunean. Jubenil mailan lehiatzen duen estreinako urtea du lasarteoritarrek.**



Enara Fernandez eskiatzailea eta Vanesa Servet Corts gidaria podiumean.

## JON ALTUNA EGITEGI

Espainiako Federazio Kopako lehen jardunaldian, lau txandatan lehiatu zuen Enara Fernandezek eta bakarka, domina bat irabazi zuen eslalomean.

Bere kategorian, bi jaitsieretako denborak batuta, 50.4ko marka egin zuen. Jaitsiera onena 24.8 segundoko denboran osatu zuen, seniorretan txapeldun izan zenak baino bigarrena bakar bat gehiago behar izan zuen herritarrek. Gainontzeko hiru dominak taldekako probetan erdietsi zituen.

'Xanadu' pista izatez erraza da, baina slalom proba egiteko zaila. Eskiatzaileei gutxienez gustatzen zaien jaitsiera da gainera Madrilgoa. Dena den, Enara Fernandez primeran moldatu zen, domina sorta etxera ekarriz.

Iraitz Etxarri gidaria bezperan lesionatu egin bazen ere, haren lana goraiatu nahi izan dute senideek. Etxarri osatuko ez zela ikusita, asteburuan Vanessa Servet Corts entrenatzaile kataluniarrarekin lehiatu zuen Fernandezek. "Asko eskertzen diet Iraitz eta Vanessa entrenatzaileei, baita Saito gimnasioko Davidi ere, pistetatik kanpo emandako laguntzagatik", jakinarazi du Fernandezek.

## Lehen urtea jubencil mailan

Joseba Angulo eta Agus Sopena eski teknikariak pozik ziren Enara Fernandezek emandako mailarekin, eta etorkizunera begira izaten ari den garapenarekin itxaropentsu daude.

IK taldeko eskiatzaileak lehen urtea du jubencil mailan,

eta lortzen ari den emaitzeekin, Espainiako txapelketa irabazteko hautagai sendoa dela berresten ari da. Aurten martxoan jokatzeko da estatuko txapelketa garrantzitsuen Pas de la Casan, Andorran.

Badu Fernandezek lehenagoko hitzordurik ordea. Hilaren 31n eta otsailaren 1ean Astunen izango da FEDCek antolatzen duen bigarren Kopa jardunaldian. Denboraldi amaieran Kopan parte-hartu duen eskiatzaile erregularrena sarituko dute, eta lasarteoritarrek borrokan egin nahi du titulu hori eskuratzeko.

Azkenik, apirilaren 1ean Molinan (Girona, Katalunia) egingo den Europako Txapelketarako ere sailkatu da herritarra. Helburua, nazioartean lehen txapela jantzea izango du Fernandezek.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 24

Michelin, 12:00etan

Ostadar SKT - Danok Bat  
Euskal Liga,  
19. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Ostadar SKT - Bergara  
Emakumezko Erregionalak, Kopa,  
4. jardunaldia.

Harane, Usurbil 16:00etan

Usurbil - Texas Lasartearra  
1. jubencilak, Kopa,  
3. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Ostadar SKT - Dunboa Eguzki  
1. jubencilak, Igoera Fasea,  
4. jardunaldia.

Karla Lekuona, Oiartzun 18:00etan

Oiartzun - Ostadar SKT  
Jubenil Ohorezko Maila,  
17. jardunaldia.

Igandea 25

Michelin, 10:30ean

Texas Lasartearra - Ontzerri  
1. Erregionala, Kopa,  
3. jardunaldia.

Mendibeltz, Orrio 11:00etan

Orioko - Ostadar SKT  
Infantil Txikiak  
Errendimendua,  
7. jardunaldia.

Karla Lekuona, Oiartzun 12:00etan

Oiartzun KE - Ostadar SKT  
Infantilen Ohorezko Maila, Kopa,  
1. jardunaldia.

Berio, Donostia 14:15ean

Antigua Luberrri - Ostadar SKT  
Kadeteen 1. maila, Kopa,  
3. jardunaldia.

Mastegi, Lesaka 16:30ean

Beti Gazte - Ostadar SKT  
Ohorezko Erregional Maila,  
19. jardunaldia.

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 16

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean  
Reformas Lagunak - Viña del Mar  
Michelingo kirol-gunea, 20:45ean  
Txindoki - Bar Buenetxea

Larunbata 17

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean  
Txoko - Ilargi

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Insausti - Bar El Punto

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

Bar Also - Trumoi

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean

Izkiña - Indaux

Udal-kiroldegia, 16:00etan

Cecilia Fruta Denda Kebab Lasarte  
- Legorreta Gazte-Piku  
Gipuzkoako 3. maila, 14. jardunaldia.

Udal-kiroldegia, 18:00etan

Ostadar Antonio Aroztegia -  
Laskorain KE  
3. Nazionala, 14. jardunaldia.



## ATLETISMOA

Larunbata 24

Velodromoa, Donostia 10:00etan

Realeko Iñigo Sevillanok eta BATEko  
Gaizka Ormazabalek Euskadiko Kopan  
parte-hartuko dute.

## IGERIKETA

Larunbata 24

Valladolid, asteburua

Nahia Zudaire Kirol Egokituko  
"Espainiako Gazteen Txapelketan"  
Euskal selekzioarekin arituko da  
asteburu osoan zehar.

Tolosa, 16:00etan

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta  
absolutuek Neguko Ligako laugarren  
eta azken jardunaldian lehiatuko dute.  
Tolosa.



## Agenda

Larunbata, Manuel Lekuona Kultur-etxean 20:00etan



### Goi mailako opera emanaldia

Royal Opera Housen grabatutako Pucciniren "Tosca" kontzertuaren emanaldia izango da larunbatean. Kultura sailak zinemaren digitalizazioarekin batera eduki berriz hornitu nahi izan du programazioa eta tartean dokumentalak eta opera txertatu ditu. Kasu honetan, operaren hitzak gazteleraz azpititulatuak daude. Sarrera Interneten 7,50 euro eta bertan 9 euro.

kien bilduma izango da ikusgai hilabete osoan zehar.

### Astigarraga

#### Antzerkia

KULTUR-ETXEAN

Igandea, 17:30ean

"Hor Konpon Marianton" haurrentzako Oskar Estanga eta Hodei Untzuetaren ikuskizuna da. Umorea, bertsoak eta txotxongiloak uztartzen ditu ikuskizunak. Telebista, sare sozialak, telefonoak...denon eskuetan daude, baita gure seme-alaba txikien eskuetan ere. Ikasi behar dugu makinekin gozatzeko, baina menpean erori gabe. Hori baita Joni, istorio honetako protagonistari gertatzen zaiona. Sarrera 2 euro.

### Lasarte-Oria

#### Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala, 22:00etan

"Paco de Lucia: la búsqueda" film-dokumentala. Okendo zinema taldearen Zine forumean. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea, 17:00etan

"Yugo eta Lala" filma haurren zinema atalean. Euskaraz. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea, 19:30ean

"Exodus: dioses y reyes" filma helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

### Musika

MENDI KAFE ROCK

Larunbata, 20:00etan

Lee Junior abeslariak 80. hamarkadako kantak eskainiko ditu. Gabinete Caligari, Loquillo, Los Rodríguez, Kiko Veneno etab.en abestiak entzuteko aukera. Sarrera doan.

### Dantza

OKENDO PLAZA

Igandea, 12:00etan

Plaza dantza saioa. Hitzordu irekia da eta eguraldi txarra egitekotan, Elizatze plazako arkupetan egingo da (BM).



### Literatura

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteartea 27, 18:30ean

Irakurle Txokoa Mari Luz Estebanen "Amaren heriotzak libreago egin ninduen" poesia liburua aztertuko da. Bertaratutakoek Uxue Alberdi idazle eta bertsolariaren laguntza izango dute lanaren inguruan hausnartzeko eta ondoren, idazlearen bisita izango dute eta berarekin hitz egin ahal izango dute herritarrek.

### Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Urtarrilan zehar

Ttaku kultur elkarteak antolatuta, abenduaren 21ean Okendon egin zen Santo Tomas azokako eta Abenduaren 24ean, Olentzeroren etorrerako argaz-

### Usurbil

#### Hitzaldia

POTXOENEAN

Astelehena 26, 18:00ean

"Teknologia berrien erabilera osasuntsua eta arrisku gabekoa" formakuntza saioa izango da Udalak sustatuta. Helburua, internet eta teknologia berriak erabiltzerakoan adingabeek aurkitu ditzaketen arriskuak eta hauen ondorioak aztertzea izango da. Honekin batera, adingabeak babesteko sustatu ahal diren prebentzio-neurrietaz aholku emango da. Guraso, tutore legal edota hezitzaile lanetan dihardutenei zuzendutako saioa da. Ikastaroa doakoa da baina gizarte-zerbitzuetako egoitzan, gizartelangilea3@usurbil.eus edo 943 377 110 telefonoan izena eman beharko da aurretik. Hizlaria Pantallas Amigas-eko Araiz Zalduegi izango da.

## Herritarren txokoa

### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza izango da Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan hilabetero bezala. Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da urtarrilaren 23an, arratsaldeko 17:00etan.

### Lasarte-Usurbil institutuko saria

Lasarte-Usurbil B.H.I Institutuko sarkiaren zozketa egin eta zenbaki sari-duna 0224 da.

### Odol ateratzeak

Hilabeteko azken asteartean urtarrilaren 27an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

**Zuen oharrak jarri, keak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

### Eskutitza

#### Hondakinak kudeatzeko BILDUK aurkeztutako planaren aurkako alegazioak

Inposatu nahi den Gipuzkoako Hiri-Hondakin azpiegiturarako Lurralde Plan sektorial berria gori-gori dagoen gaia da. Aurreko planaren aldaketa soil bat bezala aurkeztu dute baina hori ez da horrela. Dokumentu horren egileek zifra orokorrak bortsatzen dituzte hiri-hondakinak bakarrik kontabilizatuaz eta udaletxeek eta mankomunitateek derrigorrez erdietsi beharreko helburu jakin batzuz ezarri.

Ez dituzte kontuan hartu agerian dauden bigarren mailako hondakinak, hala nola, plastikozko eta papezko hondakinak berziklatzen dituzten enpresetatik etorritakoak (errefusaren frakzioa, %50ekoa izanik kasu horietan).

Ez dituzte kontuan hartu bestelako industrietatik etorritako hondakinak ere, ezta araztegiatik etorritako lohia ere. Gainera, hiri-hondakinetatik etorritako goi mailako ez dakit zenbat Tona/urtean konpost lortu nahi dute, konpost guzti hori nora joango den esan gabe.

Badirudi, kalkulo guztiak aurrez hartutako erabaki bat jositik zuzentzeko

zuzenduak daudela: errausketa sistema hondakinak kudeatzeko planetik ezabatzeko erabakia alegia. Hala eta guztiz ere, zifrak artifizialki murrizteko ahalegin guztiak eginda ere, oraindik Zestoan (uzten badie) edo zehazteke dauden beste harrobiren batzuetan lurperatu nahi dituzten 60.000 Tn/urtean materia organiko ("inertizatu" diote beraiek) gelditzen zaie. Isurketa hauek indarrean dagoen araudian zehaztutako helburuen urratze nabarmen bat suposatzen dute eta, horregatik, nire ustez LPS hau legez kontrakoa da.

Edozein kasutan, hain eskasa da plana, non guztion sen ona ezarriko dela pentsatzen baitut eta plan hori inoiz atera behar ez zen paperontzira botako dutela espero dut. Alegazioak aurkeztu ahal izateko jendaurreko erakustaldiaren fasean dagoela uste det.

Nik, pertsonalki, aurkeztu ditut jada nireak eta gai honekin benetan kezkatuta dagoen pertsona oro animatu nahi dut plana aztertu eta alegazioak aurkeztu ditzan. Zentzuzko kudeaketa batengatik izan bedi dena,

hainbeste diru eta denbora galdu arazten ari diguten ameskerietatik urrun.

Juan Mari Alkorta Etxeberria



# Danborrada herriko lau ikastetxeetan

San Sebastian bezperan gogotsu astindu zituzten danborrak herriko 600 bat ikaslek

San Sebastian eguna asteartean izan zen arren, astelehen arratsaldean egin zituzten danborradak Lasarte-Oriako Landaberri-Garaikoetxea eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako haur, gazte eta irakasleek. Donostiako egun handia izan arren, herrian ere errotuta dagoen jaia da eta halaxe erakutsi zuten haur eta gurasoen emozioak. Besteak beste, Tatiago, Iriyarena, Polka, San Sebastian martxa, Realaren ereserkia, Lasarte-Oriakoa... jo zituzten, umore onean.

TXINTXARRI

Astelehen arratsaldean eskaini zituzten ikuskizunen ostean, asteartean berriro zituzten indarrak herriko ikastetxeetako gaztetxoek, jai eguna izan baitzuten San Sebastian eguna zela eta.

Zumaburu, Sasoeta, Garaikoetxea eta Landaberriko ikasleek gogotsu eta fin astindu zituzten danborrak, guraso eta lagunengozamenerako.

## Sasoeta-Zumaburu

Lehen aldiz, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasle guztiak sukaldariz jantzita joan ziren. Euren egindako txanoak buruan, kamiseta txuria eta galtza urdinekin astindu zituzten danbor eta makilak.

Ohi bezala, kolore txuri-urdina izan zen protagonista Zumaburuko patioan eta Sasoetako gimnasioan. Raimundo Sarriegiren doinuei bolumena topera jarri eta erritmoa zintzo eraman zuten gaztetxoek, irakasle eta zuzendarien laguntzaz.

Burunzpe guraso elkarteko hainbat kidek ere gogotsu hartu zuten parte danborradan eta ia-ia gaztetxoak bezainbeste, edo gehiago

gozatzen ikusi genituen danbor eta makilak eskutan.

## Garaikoetxea-Landaberri

Garaikoetxeako haurrek bezainbeste gogo zituzten gurasoek astelehenero ikuskizunaz gozatzeko, hasi baino hogeita minutu lehenago ilara egiten ari baitziren sartzeko. Merezki izan zuen itxaronaldiak, Garaikoetxeako haur eta irakasleek, zuriz jantzita, ikuskizun bikaina eskaini baitzuten danborrak astinduz.

Euri-tanta batzuk erori baziren ere, Landaberri ikastetxeko ikasle eta irakasleen emanaldia ez zuten zapuztu, eta gogotik gozatu zuten ikusleek. Zuzendarien erritmoa bikainki jarraituz astindu zituzten danborrak gaztetxoek anfiteatroan ondo lerratuta. Egun berezia da ikasleentzat; datorren urtekorako gogotsu egongo dira jada.

Ikastetxeetako haurrek bakarrik ez, gurasoek ere gogoia edukiko dute jada datorren urteko danborradarako, asteleheneroan ikusitakoaren arabera. Hainbat eta hainbat guraso bertaratu ziren ikastetxeetara, askok kamerak edo sakelekoak eskutan zituztela, euren seme-alabak danborra jotzen ikustera.



Zuzendariak markatutako erritmoa primeran jarraitu zuten Sasoeta eta Landaberri ikastetxeetako gaztetxoek.

